

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak Eguberrietan arduraz kontsumitzeko zenbait gomendio eman ditu

Gastuak planifikatzea, kreditu-txartela zuhurtziaz erabiltzea edo etiketetan arreta jartzea dira aholku horietako batzuk

Lunes, 14 de diciembre de 2015

Nafarroako Gobernuak, Kontsumoko Zerbitzuaren bidez, Eguberrietako erosketak egiteko honako gomendio hauek eman ditu: gastuak planifikatzea, kreditu-txartela zuhurtziaz erabiltzea, txartelak gordetzea, edo etiketetan arreta jartzea, kontsumitzeko egunei, kontserbazioari eta erabilera-jarraibideei buruzko informazioan bereziki,

Internet bidezko erosketei dagokienez, Nafarroako Gobernuak ordaintzeko era seguruak hautatzeko aholkatzen du: transferentzia, txartel edo espezializatutako plataformen bidez eta, nolana ere, helbideen barran "https" agertzen den egiaztatzea; horrek adieraziko du orrialdea konexio segurua erabiltzen ari dela.

Beste gomendio bat Kontsumoko Arbitraje Sistemari atxikitako bereizgarria duten establezimenduak lehenestea da; hala, erreklamazioren bat eginez gero, gatazka adiskidetasunez, bizkor eta doan konpondu ahal izango da.

Jostailu bat erosteko garaian, segurtasunak zer garrantzi duen gogora ekarri nahi da. CE markak jostailuak komunitateko araudien eskaerak betetzen dituela esan nahi du, beren heldutasun eta adina kontuan hartuz hurrek ondo pasatzeko balio behar duen jostailuak

Azkenik, merkataritzako establezimendu guztiek erreklamazio-orriak izan behar dituztela azpimarratu da.